

**EUSKAL UNIBERTSITATE SISTEMAKO TALDEEN DEIALDIA 2026-2029
UPV/EHUko IKERKETA ERREKTOREORDETZAREN AZALPENAK**

Garrantzitsua: horiz adierazi dira aurreko bertsioarekiko aldaketak

1. Taldeak osatzea Ikerketa Taldeak aplikazioan eta ikertzaile berriak sartzeko modua

Ikerketa Errektoreordetzak, Eusko Jaurlaritzako Zientzia Politikako Zuzendaritzarekin koordinatuta, [aginduan](#) ezarritako irizpideen arabera deialdian parte har dezaketen UPV/EHUko ikertzaile guztien aurrekarga egin du Ikerketa Taldeak aplikazioan.

Taldeak osatzeko modua aldatu egin da. Aurreko deialdietan ez bezala, orain ez da Excel bat bidali behar Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzara (IGZ), sartu nahi diren pertsonen datuekin. Hori **automatikoki** egingo du Ikerketa Taldeak aplikazioak.

Talde berriaren Ikertzaile Nagusia (IN) aplikaziora sartu eta dagozkion eremuak betetzen hasiko da. Une horretan erabaki beharko du...:

- a) aurreko taldeak a) eta b) ataletan lortutako puntuazioa gorde nahi duen (deialdiaren 12.3.5. artikulua). Kasu horretan, eta betiere deialdiak egoera honetarako ezarritako baldintzak betetzen badira, ez da informaziorik eman beharko 2020-2025 urteetako merezimendu zientifikoei buruz.

Ikertzaile Nagusia aplikazioan sartuko da, eta aurreko taldeko puntuazioa mantendu nahi duela adieraziko du. Aplikazioak antzematen badu IP berria aurreko taldekoa berdina dela, esteka bat agertuko da 25 puntutik gorako baldintza betetzen dela egiaztatzeko.

Kide kopuruaren betekizuna (%75eko kointzidentzia aurreko taldearekin) eskaera berria aurkeztean egingo da, ikertalde osoa sartu ondoren. Adierazitako ehunekoa betetzen bada, aplikazioak aukera emango du eskaera ixteko. Bestela, aplikazioak adieraziko du taldeak ezin diola salbuespen horri heldu, eta 2020 -2025 aldiko adierazleak eskuz hautatu beharko dira.

Ikerketa Errektoreordetzatik aurreko taldeetako bajak eguneratu ditu, %75eko betekizuna benetako kideen gainean egiten dela bermatzeko.

- b) talde berri bat sortu nahi duen, 2020-2025 urteetan lortutako merezimendu zientifikoak erabilita. Kasu horretan, Ikertzaile Nagusia arduratuko da taldekideak sartzeaz, NAN erabilita. Aplikazioak mezu bat igorriko dio haietako bakoitzari, taldekide izatearekin ados dagoen galdetuz. Erantzuna baiezkoa bada, pertsona hori automatikoki sartuko da ikertaldean eta automatikoki aurrekargatuko dira haren merezimendu zientifiko guztiak (ikus xehetasun gehiago 2. puntuan).

Hautatutako ikertzaileak ez baditu betetzen deialdian ezarritako lotura-baldintzak, mezu bat agertuko da, pertsonak ezin duela parte hartu adierazteko.

Ikertaldeko kide gisa sartu nahi den pertsonaren NAN sartzean pertsona hori aplikazioan agertzen ez bada, gruposinvestigacion.dgi@ehu.eus postontzira jo beharko da, eta haren oinarritzko datuak eman: izen-abizenak eta NAN. Teknikariek kasua aztertuko dute eta, hala badagokio, pertsona hori aplikazioan sartzeko eskatuko diote Eusko Jaurlaritzari. Erantzuna azkartzeko, eskaera guztiak mezu bakarrean elkartzeko eskatzen zaie ikertzaileei.

Ikertaldeetako kide izan daitezkeen baina UPV/EHUkoak ez diren pertsonen kasuan (Deustuko Unibertsitateko ikertzaileak, ez Mondragon Unibertsitatekoak), eskaera zuzenean igorri beharko da helbide honetara: zientzia.ikerketa@euskadi.eus

4.1.2 artikuluan deskribatutako ikertzaileak (*Zientziarako Euskal Fundazioaren / Ikerbasque bitartez kontratatutako ikertzaileak (Research Professor, Research Associate zein Research Fellow moduan), destinoa Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten unibertsitateetako batean dutenean*) UPV/EHU kontratua duten Ikerbasqueko langileei mugatzen dira soilik (Eusko Jaurlaritzak berretsita).

2. Ikertaldean ekoizpen adierazleak: aurrekargatutako adierazleen akatsak zuzentzea eta merezimendu berrien alta (beharrezkoa izanez gero)

Ikertaldean sartzen den ikertzaile bakoitzari ekoizpen adierazle batzuk dagozkio, deialdian aipatzen diren alorretan: argitalpenak, tesiak, ikerketa proiektu/kontratueta lortutako finantzaketa, eta doktorego aurreko, doktorego ondoko eta taldearen baitan kontratatutako ikertzaileen kontratuak.

Adierazle horiek lortzen dira IKERTU ikerketa gestioako aplikaziotik, bai eta UPV/EHUk erabiltzen dituen gainerako datu-baseetatik ere, Eusko Jaurlaritzako Zientzia Politikako Zuzendaritzarekin adostutako irizpideen arabera.

Ikertzaile Nagusi bakoitzak Ikerketa Taldeak aplikazioan hautatu beharko ditu, 7.2.3. oinarrian ezarritako muga barruan, taldeari gehitu nahi dizkion merezimenduak, kontuan hartu daitezkeen ebaluazioan (horretarako menua dago aurrekargatutako merezimendu bakoitzaren azpian). Gainera, Ikertzaile Nagusiak erreserba adierazleak hautatu beharko ditu, kontuan hartuko direnak, beharrezkoa izanez gero.

Garrantzitsua: ikertzaile bakoitzaren kasuan aurrekargatutako ekoizpen zientifikoa UPV/EHUren erregistroetan dagoen ekoizpen guztiaren iraulketa gordin bat da. Horregatik, komeni da berrikustea aginduaren baldintzak eta aukeratzea **soilik** deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituzten adierazleak.

“Xede adierazleak” konfiguratzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak ez du kontuan hartuko behin betiko eskaeran sartzeko hautatu ez den ekoizpenik, eta ez da bistaratuko inola ere ebaluazioan (alboratu egin daiteke guztiz).

Merezimendu bat hautatu denean, Ikertzaile Nagusiak egin dezake:

- Merezimendu hori aurre-hautaketatik ezabatu, azkenean merezimendu hori ez sartzea erabakitzen badu.
- Erreserban utzi, kupo horretan egotea nahi badu.
- Oharrak planteatu, horretarako gaitutako eremuan, uste bada datuetako bat ez dela zuzena. Komeni da argi identifikatzea okertzat jotzen den datua, IGZko teknikariek azter dezaten.

Zuzendu nahi den merezimenduaren aurre-erregistro bat badago (akatsak izan baditzake ere), ez da inola ere erregistro berri bat sortu beharko. Hori gertatuko balitz, egoki irizten diren oharrak sartu beharko dira horretarako eremuan, eta Eusko Jaurlaritza izango da bere kabuz zuzenduko duena, datuen egitasuna adostu ondoren IGZko teknikariek. Hori egingo da eskaerak aurkezteko epea amaitzean.

Badakigu aurrekargatutako merezimenduen eremu batzuk gorritik daudela, informazio faltagatik. IGZ lanean ari da hori konpontzeko, eremu horiek ondo bistaratu daitezkeen.

Era berean, UPV/EHUk eginiko aurrekargan ez dauden merezimenduak sartu ahal izango ditu Ikertzaile Nagusiak eskaeran.

- UPV/EHUtik kanpoko merezimenduak badira, haien frogagiriak aurkeztu beharko dira, Eusko Jaurlaritzako Zientzia Politikako Zuzendaritzak balora ditzan.

- UPV/EHUren datu-baseetan egon beharko liratekeen merezimenduak badira, **aplikazioan sartzea gomendatzen da erregistro berri bat sortuz**. Gutxieneko datuak adierazi beharko dira. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Ikerketa Errektoreordetzak baliozkotuko ditu.

3. Gutxieneko ekoizpena akreditatzea (4.6. artikulua)

~~UPV/EHUko Ikerketaren Gestio Zuzendaritza eta Eusko Jaurlaritzako Zientzia Politikako Zuzendaritza lanean ari dira UPV/EHUko ikertzaileak salbuesteko b) eta c) ataletan (doktorego tesiak eta ikerketa proiektuak, hurrenez hurren) gutxieneko ekoizpena justifikatzeko dokumentuak aurkezteko betebeharretik, kontuan izanik unibertsitateak jada aurrekargatu eta baliozkotu egin dituela eskaeran dauden datuak.~~

~~Ikertzaile Nagusiei gomendatzen zaie oraingoz ez eskatzea frogagiririk, geure kabuz konpondu ahal izango dugulakoan. Edonola ere, garaiz abisatuko dugu, tramiteren bat egin behar izanez gero.~~

Eusko Jaurlaritzak baieztatu digu **ez dela beharrezkoa izango** b) eta c) ataletan (doktorego tesiak eta ikerketa proiektuak, hurrenez hurren) gutxieneko ekoizpena justifikatzeko dokumenturik aurkeztea, kontuan hartuta eskabidean agertzen diren datuak jada unibertsitateak kargatu eta baliozkotu dituela.

Salbuespenak: egiaztatu nahi den merezimendua UPV/EHUtik kanpoko denean (adibidez, beste unibertsitate batean defendatutako tesi bat) edo UPV/EHUK egindako aurrekargan agertzen ez diren merezimenduak eta ikertzaile nagusiak eskuz sartu badu.

4. Kontsultak kudeatzeko barne oharrak

Ikertketaren Gestio Zuzendaritzak lehentasuna emango die:

- Taldeen osaerari buruzko kontsultei, bereziki zerikusia badute **gutxieneko taldearen** konfigurazioarekin.
- Taldearen **gutxieneko ekoizpenari** buruzko kontsultei (deialdian baldintza gisa ezarritako ekoizpena). Taldeetako Ikertzaile Nagusiek mezu elektroniko bat bidaliko dute gruposinvestigacion.dgi@ehu.eus postontzira, **"gutxieneko taldea"** edo **"gutxieneko ekoizpena"** idatzita gaian (kasuaren arabera), identifikazioa azkartzeko eta kontsulta ahalik eta lasterren ebatzeko.

Akatsen bat duten merezimenduen gainerako gorabeherak idatziko dira merezimendu bakoitzarentzat gaitutako oharren eremuan, dokumentu honen 2. puntuan adierazitakoaren arabera.

Aldaketak egiteko ahalmena (aldaketak beharrezkoak izanez gero) dagokio Eusko Jaurlaritzako Zientzia Politikako Zuzendaritzari, eta zuzendaritza horretatik adierazi digute **ezin izango dutela aldaketarik egin eskaeren epea amaitu arte** (eskaera kopuru handi bati eragiten dioten akats sistematikoak badira izan ezik).

Eskaerak aurkezteko epea amaitzean, Eusko Jaurlaritzako Zientzia Politikako Zuzendaritzak dokumentu bat bidaliko dio UPV/EHUko Ikerketaren Gestio Zuzendaritzari, ikertzaileek eginiko ohar guztiekin, teknikariek aztertu eta akatsak zuzen ditzaten. Ikusiko balitz Ikertzaile Nagusiak emandako informazioa zuzena dela, Ikerketaren Gestio Zuzendaritzako teknikariek Eusko Jaurlaritzari helaraziko diote, eta azken hori arduratuko da bere kabuz aldaketa aplikazioan egiteaz.

5. Aurrekargan aldaketak

Ikertzaileei dagokionez:

- Lanaldi osoko bitarteko lan-kontratuko langileei lotutako karga eguneratu da
- Doktoratu aurreko kontratu batzuen amaiera-datak eguneratu dira, lan lotura ez-betetze arazoak ekiditzeko.
- Itzal handiko Ikertzaileak (Ikerbasque) kargatu dira

- Duela gutxi kontratua sinatu duten ikertzaileak sartu dira aplikazioan (emerituak barne)
- Irakasle atxiki, laguntzaile doktore edo Ikerbasque Research Fellow kontratuen amaiera-data adierazi da aplikazioan (Eusko Jaurlaritzak eskatu du). Kontratuaren amaiera-data 2026ko abendua baino lehenagokoa bada, ikerketa-taldeko kide gisa sartu ahal izango dira, betiere ebaluazio positiboren bat edo egiaztagiriren aplikazioan erantsiz. Dokumentu hori ez badago, pertsonak ezin izango du parte hartu.
- Zenbait kategoriatan emandako EJC kodeetan akatsak hauteman ditugu. Berrikusten ari dira, eta lehenbailehen zuzenduko dira.
- Aplikazioak arazoak ematen ari da Irakasle atxiki, laguntzaile doktore eta Ikerbasque Research Fellow kontratudunekin. Hauei 2027/12/31ra arteko lotura eskatzen zieten, baina deialdiak ordea 2026/12/31 ezartzen zuen. Aplikazioa aldatu da deialdiaren baldintza bete dadin (2026/12/31). Beharrezkoa den kasuetan, 4.2 artikuluan deskribatutako egiaztapen/ebaluazio positiboa eskatuko da.
- Beste urtebete gehitu zaio Eusko Jaurlaritzaren doktore ondoko kontratuen amaiera-datari (DKR), unibertsitateak kontratuaren bosgarren urtea bermatu dezakeen kasuetan (ZTBLren 22. Artikuluko mugak errespetatuz)

Merezimenduei dagokionez:

- Egile ugari dituzten argitalpenetan errore bat antzeman da (ez ziren kontuan hartzen seigarren postutik aurrerako egileak). Asteazken zehar beste karga bat egingo da zuzentzeko.
- Masterreko informazioa ez da Ikerketa Errektoreordetzatik kargatu. Balio horiek eskuz sartu beharko dira.
- Aurrekarga berri bat egingo da Elkartek 2025 deialdiko proiektuak sartzeko. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak baieztatu digu 2025ko Ezagutza Sortzeko proiektuak ezin izango direla aplikazioan sartu behin betiko ebazpena argitaratzen ez bada. Informazio guztia prestatu dugu, azkenean kargatu ahal izateko. Oraingoz itxaron behar dugu.

Ikerketa Kudeatzeko Zuzendaritza kontsulta kopuru aparta jasotzen ari da. Lan handia egiten ari gara horietako bakoitzari ahalik eta azkarren erantzuteko.

Eskertzen dugu zure ulermena eta pazientzia